



Jose Miguel  
Azaola  
Uriguen

*Bilboko liberal euskaltzalea*

(1917-2007)

BIDeGILEAK

Egilea:

**Antton Ugarte Muñoz**



# JOSE MIGUEL AZAOLA URIGUEN

(1917-2007)

## Biografia ibiltaria

**J**ose Miguel Azaola Uriguen 1917ko maiatzaren 6an jaio zen Bilboko Mazaredo Zumarkalean, burges familiaren altzoan. Hurrengo urtean jaio zen haren arreba bakarra, Maria Isabel.

Haien aita, Miguel Azaola Ondartza mediku gisa aritu zen, Basurtuko Ospitalean eta kontsulta pribatuan. Miguel Azaola Basagoitia, aitona, II. Karlistaldian Bilbo defendatu zuten borondatezko laguntzaileetako bat izan zen. Udaleko zinegotzi lanak bete zituen XIX. mendeko azken hamarkadan. Bilobak txikitatik miretsi zituen aitonaren eta gainerako bilbotar liberalen balentriak. Aiton-amonen Belostikaleko etxean biltzen zen familia Maiatzaren 2an,

hiriburu garaitugabearen festa karlistaldiko kantuz ospatzeko.

Isabel Uriguen Sanchez amaren aldeko Uriguendarrak goi burgesiako liberalak ziren. Braulio Uriguen Bayo aitona ere udaleko zinegotzia izan zen 1881-83 artean.



Baserritar  
jantzita 1923an



Jose Miguel eta  
Maria Isabel  
anai-arrebak hiru  
osabarekin

Bilboaldeko ekintza ekonomiko garrantzitsuen eraketan esku hartu zuen: Labe Garaiak, Merkataritza Etxea, Burtsa... Antza denez, Azaolak familiaren zuhaitz genealogikoa osatu zuenean, liberalak besterik ez zituen aurkitu, karlista bat bakarra ere ez.

## BILBON

Jaiotetxetik Plaza Eliptiko ingurura aldatu zen Jose Miguel txikiaren familia 1925ean. Lau urte ondoren amaren gurasoen Kale Nagusiko etxera joan ziren. Udaldiak Areetan igarotzen zituzten, hiriburuko burgesian ohitura zenez.

Oso gazte ikasi zituen hala frantsesa nola alemana. Urteen poderioz hainbat hizkuntza irakurtzeko gai izatera iritsi zen, bai klasikoak (latina, grekoa), bai modernoak ere (italiera, portugesa, ingelesa, katalana,

galiziera...). Euskaraz den bezainbatean, oinarrizko gramatika nahiz hiztegia ikasi zituen, baina ez zen hitz egiteko gauza izan. Haren emazteak, ordea, bazekien Lekeitioko euskara, eta Azaolari damutzen zitzaion berari eta seme-alabei euskara gehiago irakatsi ez izana.

Irakurle amorratua zen, bereziki europar literaturarena. Maria Uriguen izebak irakatsi zizkion musikaren hastapenak piano-larekin. Francisco Azaola osabak, aldiz, antzertiarekiko karra pizten lagundu zion. Jose Miguelek bereziki maite zuen Manuel Fernandez Caballeroren *Los sobrinos del Capitán Grant* (1877) zarzuela. Hura ikustea familiaren eguberri ohitura izan da gaur arte.

Poza Lizentziatuaren kaleko Alfontso XIII.a Institutu berrian hasi zuen batxilergoa, 1927an. Maximo Abauntza zuzendari errepublikanoak hezkuntza aurrerazalearekin bat egiten zuen. Esaterako, ez zen irakasleen zigor fisikorik onartzen. Jose Miguelek gaitasun handia zuen ikasketarako, eta zegokiona baino maila bat aurrerago hasi zen institutuan. Bosgarren mailara iristean, hainbat ikasgai bere kasa gainditu, eta batxiler titulua eskuratu zuen.



Jose Luis Albeniz eta Blas Otero kazetarien artean, 1935ean. Otero eta Azaola adiskide minak izan ziren, hura poeta famatua bilakatu baino lehen

Zuzenbidea ikasten hasi zen Madrilan, baina eskolak hartu gabe. 1932ko udan lehen maila burutua zuen, ahalik eta azkarren bukatu nahi zuelako, gero filosofia eta letrak ikasi ahal izateko. 1936ko zorigaiztoko udan lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean.

Lehenago, Espainiako II. Errepublikaren aro liskartuan, ideologia ezberdineko hamar lagunek ALEA (Asociación Libre de Ensayos Artísticos) kultur taldea sortu zuten Billboko Plaza Barriko kafetegian. Gustavo Maeztu margolaria zen zaharrena, eta sustaile nagusia izango zen Azaola, gazteena. Hainbat kulturgile gehituko zitzaizkien ondoren: Blas de Otero, Jaime Delclaux, Nicolas Martinez Ortiz, E. Urkiaga *Lauaxeta*...

## GERRA ZIBILA

Gerra Zibilaren bezperan bi adiskiderekin autoz abiatu zen Alemania-Austriarantz, musika jaialdi eta Olinpiar Jokoek erakarritan. Espainiako estatu kolpeak hartu zuen jitea ikusita, itzultzerakoan Lapurdin geratu, eta ondoren Suitzara joan zen. Friburgoko Unibertsitate elebidunean (frantsesa eta alemana) zuzenbideko doktorego ikasketetan aritu zen urte erdiz. Suitzan bizitako federalismo eleanitzak eragin nabarmena izan zuen Azaolarengan.

Militar matxinatuak Bilbon 1937ko udan sartu ostean, familiak itzultzea aholkatu zion, agintari berriek zigortu ez zezaten. Armadan sartu zuten hiru hilabetez, baina, zorionez, ez zuen armarik erabili behar izan. Gaixorik, Iruñean ospitaleratu zuten eta, behin sendatuta, etxera joan ahal izan zen.

1939ko udaberrian, Alea taldeak berriz ekin zion ageriko jardunari. Gerraosteko giro latzean gizon-emakume ugari bildu zen kultur taldera literaturaz, arteaz, filosofiaz, musikaz edo antzertiaz mintzatzeko. Alea gauza izan zen *Cuadernos del*



Alea elkarteko kide gisa hitzaldia ematen Bilbon, 1941ean



Jose Miguel Azaola eta Maria Josefa Rodriguez-Espina 1942ko maiatzean, ezkondu baino lehentxeago

*grupo «Alea»*ren sei zenbaki monografiko argitaratzeko 1942-44 artean, egile banaren eskutik: Pablo Bilbao Ariztegi, Blas de Otero, Azaola bera, Manuel Maria Arredondo, Esteban Calle Iturrino eta taldeari izena jarri zion Antonio Elias Martinena.

## DONOSTIAN

1942ko maiatzaren 20an Azaola eta Maria Josefa Rodriguez-Espina ezkondu egin ziren Bilboko Jaun Done Jakue basilikan. Urte berean senar-emazteak Donostiara aldatu ziren bizitzera eta, besteak beste, horregatik Alea itzaltzen joan zen poliki-po-

liki. Luzaroan Gros auzoko Iztueta kalean bizi izan ziren, eta Donostian jaio zitzairen hamalau seme-alabetako lehena. Izan ere, zazpi seme eta zazpi alaba izan zituzten.

Hasieran, Pax argitaletxe katolikoan lan egin zuen. Erabat asebetetzen ez zuelako, *Lar* aldizkaria zuzendu zuen lagun batekin, baina gerraosteko ekonomia arazoek bertan behera utziarazi zioten egitasmo hura. Soldata egonkorragoaren bila, Alvamar arrantza enpresara jo zuen kudeatzaile gisa 1945-52 artean. Enpresak ontzidi txikia zuen Pasaian, eta Azaola izan omen zen legatz arrastre-ontziak Ternuako bakailoaren arrantzara bidali zituen lehena.

1936an itxiarazitako Gipuzkoar Ateneoa berriz abiatu zen 1944an, Leandro Martín-Santos mediku militarra buru zela. Azaolak, bertan hitzaldiak emateaz gain, Ateneoan sortu zituen hala Horas Poéticas taldea, nola Centro de Estudios Europeos aitzindaria. Besteak beste, Luis Martín-Santos, Jose Ramon Rekalde eta Enrique Mujika ezkertiar gazteak aritu ziren Azaolak 1951n sortutako Europa batuaren aldeko talde horretan. Ez da harrizkoa garaiko agintariekin arazoak izan baldin bazituzten.

Donostian, Karlos Santamariak berriz bultzatutako Conversaciones Católicas Internacionales-en aritu zen. Lehenengo, hizlari gisa, eta gero, antolatzaile nahiz *Documentos* aldizkariaren erredaktore. Solasaldiok Aita Santuaren nuntzioaren, Kanpo Arazoetako ministroaren eta gobernadore zibilarren jarrerari esker egin ahal izan zituzten 1947-59 artean. Europa osora zabalik zeudenez, lan hizkuntza frantsesa zuten. Frankismo nazionalkatolikoaren aldian, nolabait aurreratu egin zitzaizkion II. Vatikanoko Kontzilioaren gizarte doktrinari.



Donostian hitzaldia ematen 1950ean

## MADRILEN ETA PARISEN

Alvamar enpresan gertatutako iruzurrak nahigabetuta, Madrilen lan egitera aldatzen da familiarekin 1953an. Bi urtez Consejo Superior de Investigaciones Cientificas-en (CSIC) arituko da. Ondoren, Instituto Nacional del Libro Español-en (INLE) lan egingo du 1963 arte.

Berehala Seminario de Estudios Europeos sortuko du Madrilgo Ateneoan, eta bertatik Europa batuaren aldekoak biltzen saiatuko da. Hitzaldi eta argitalpen andana egingo du europar federalismoa hedatzearen frankismo betean. Garaian antzeko saioa burutzen ari ziren erbesteko alderdi politikoak, eta ondorioz joeren arteko lehia piztu zen.





CSICen egin zuen lan urte pare batean

Bestalde, INLEren idazkari nagusi izatera iritsi zen, eta sarri idazten zuen erakundearen *El Libro Español* aldizkarian. Garai horretakoa da *El libro entre nosotros* (1960) azterketa. Nazioarteko erakundeei dagokienez, International Publishers Association-eko kide, eta International Board on Books for Young People-n (IBBY) sortzaile izatea egokitu zitzaion. Haur literatura sustatzeko erakunde horren buruorde nahiz ohorezko kide izan zen. Halaber, IBBY-k bi urtez behin ematen duen «Hans Christian Andersen» sariaren epaimahai-buru lanak egin zituen.

Familia berriz aldatzen da bizilekuz 1963 urtean. Unescoren Parisko egoitzan hasi baitzen lanean Azaola, agiri eta argitalpen



Unescoren egoitza nagusia aritu zen luzaroan, bereziki egile-eskubideez arduratuz. Parisen egin zioten argazki hau 1969an

zerbitzuan. Lehendabizi Ile-de-France-ko Palaiseau-n biziko dira, eta gero Saint-Remy-les-Chevreuse-n.

1967an senar-emazteek zilarrezko ezteiak Donostian ospatu zituzten, meza Jose Ignacio Telletxea historialariak eman zuela. Seme-alabak sakabanatuta zeudenez, Frantzia eta Espainian, elkartzeko leku bat bilatu nahi izan zuen Nafarroan. Toki hori 1970eko hamarkadaren hasieran aurkitu zuen Leotzen, Orbaibarreko herri txiki batean. Geroztik familiaren elkargunea izan da hango etxea.

1977an hartuko du erretiroa, ordurako Unescoren International Copyright Information Center-eko burua zela. Espainiako Trantsizioak biziki erakarriko du, baina ez



du ezein alderdirekin bat egingo, nahiz eta hala eskatu zioten. Adrian Zelaia legelariak Bilbon zuzendutako batzorde batean aholkulari jardun zuen 1976an. Gobernuaren aginduz, Bizkaia eta Gipuzkoarako Ekonomia Ituna berreskuratzea aztertzen ari ziren. Garaiko politika bizi iritzia plaza-ratuko du hainbat egunkaritan, beti indarkeriaren aurka agertzen zela.

## FRIBURGON ETA ALCALA DE HENARESEN

Suitzara itzuli zen emaztearekin 1979ko neguan, Friburgoko kantonamenduko Villars-sur-Glane-n ezarri baitzuten bizilekua. Espainiako Gerra Zibilak patxadaz baliatzen utzi ez zion elebidun unibertsitateko biblioteka zuen eskura. Garai horretan idazlan ugari argitaratzeko astia izango du. Bizkaiko *El Correo Español* egunkariaren Suitzako berriemaile ere izango da.

Cristóbal Colónen bidaiaren V. mendeurrenaren atarian, ALDEEU elkartearen gonbita jaso zuen. Puerto Ricon 1990ean antolatutako biltzarrean hitzaldia eman



Azaolatarrek Bilboko Zazpi Kaleetan zuten denda aurrean, 1972ko argazkian: Jose Miguel, semea, biloba eta dendako langile izandako Martin ondarroarra

zuen: «España, idioma y cultura: trípico, en crisis, de una aventura ultramarina». Gaztelania hizpide, Amerikako eta Europako hizkuntzen historiaz, egoeraz nahiz etorkizunaz mintzo zen.

Bilboko Bidebarrieta Kulturguneak omenaldia egin zion 1999ko martxoan, Gregorio San Juan eta Adrian Zelaia adiskideak bertan zirela. Zoritxarrez, irailean garun infartuak eman zion, eta oso makal geratu zen. Hurrengo urteko udan senar-emazteak Alcalá de Henaresa joan ziren, Madrilgo seme-alabengandik ger-



Erretiroa hartu ondoren, Suitzako Friburgen 1981ean

tuago bizitzearren. Han jaso zuen Eusko Ikaskuntzaren 2000ko «Manuel Lekuona» saria, Juan Jose Goirienaren eskutik.

Henrike Knörr euskaltzainaren temari esker, 2003an Azaolak milaka agiriz osatutako artxiboa eskuratu zion Sancho el Sabio Fundazioari, katalogatuta eta digitalizatuta gorde zezan ikerketarako. Gainerako artxibo guztia eta liburutegi pertsonalaren zati handi bat jasoko omen du Gasteizko erakundeak.

Jose Miguel Azaola Uriguen 2007ko irailaren 8an hil zen Alcalá de Henaresen. Hil ondoan gorazarreko lan ugari idatzi ziren agerkarietan. Urtea bukatu aurretik jaioterriko Udalak «bilbotar ospetsu» izendatu zuen, eta Juan Agirrek bio-bibliografia



Senar-emazteak adiskidez inguratuta, Bidebarrieta Kulturguneak egin zion omenaldian. Eskuinetik bigarrena Henrike Knörr da, Azaola Eusko Ikaskuntzaren «Manuel Lekuona» sarira aurkeztu zuena

zehatza burutu zuen Eusko Ikaskuntzaren bidez.


Bilbotarraren lanak bizirik dirauenaren froga gehiago etorri dira. 2008an Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, Ortega y Gasset Fundazioak eta *Cuadernos de Alzate* aldizkariak omenaldia egin zioten Madrilén. Zuzenbidearen Euskal Akademiak orobat *Jose Miguel de Azaola, el genio personalista* (2010) liburua eman zuen argitarara. Eta uda horretako EHUren ikastaroetan, Juan Jose Solozabal legelariak hitzaldia eman zuen Azaolaz.

# RESUMEN HISTORICO DE LA VILLA DE BILBAO



JOSE MIGUEL DE AZAOLA

## Idazle nekaezina



Jaioterriaz asko idatzi zuen. Artikuluez gain, hiru liburu utzi zizkigun: *Resumen histórico de la I. Villa de Bilbao* (1931); *Sitio y bombardeo de Bilbao, 1873-1874* (1981); eta *Memoria de mi Bilbao* (2010)

**G**oiztiartasun harrigarriaren erakusgarri, hamalau urte betetzeke plazaratu zuen lehen liburua. Julian Bayok argitaratu zion Portugaleten, *Resumen histórico de la Invicta Villa de Bilbao* (1931) izenburuarekin. Hamarka orrialdetan hiriburuaren historia ederki laburtu zuen, Erdi Aroko sortzetik azken Karlistaldia arte. Hain zuen, Bilbo karlistengandik defendatu zuen aitonari eskaini zion liberalismo foruzale sutsua erakusten duen idazlana. Mende erdi igarota, jaioterriko historiaren pasarte hura izan zuen berriz ere hizpide: *Sitio y bombardeo de Bilbao 1873-1874*.

Azaola Europara begira jarriko da berehala. *El Pueblo Vasco* egunkari monarkikoan estraineko artikulua agertuko du 1935ean: «La Unión Paneuropea, defensa de la paz».

1923an Austrian abiatutako elkarte politiko hura izan zen Azaola kide izan zuen alderdi bakarra. Alea taldearen aurrean ere hitzaldia egingo du 1936an, Europa batua-  
ren aldeko erakunde bakezaleaz.

Esan bezala, antzertia maite zuen, eta gerraostean kritika iruzkinak idatzi zituen ezizenarekin *Hierro* egunkarian. 1941ean Aleak Goetheren *Fausten* lehen zatia eman zuen Campos Elíseos Antzokian. Jose Miguelek moldatu zuen laburpena, eta hark ziharduen rol nagusian. Liburu gisa argitaratuko du kultur taldeak Donostian: *Síntesis de la primera parte de «Fausto»* (1943).

Gipuzkoar Ateneoko poesia taldeak ere emaitzarik eman zuen, tartean Gabriel Celaya zegoela: *Primera antología de Horas Poéticas* (1951). Lantegi zuen Pax argitaletxearentzat, aldiz, *Ecrits spirituels d'Eve Lavallière* (1939) liburua itzuli zuen gaztelaniara.

## PERTSONALISMOA

Garai horretan, Conversaciones Católicas Internacionales-en *Documentos* aldizkarian ere sarri idatziko du, pentsamendu



JOSÉ MIGUEL DE AZAOLA  
por "Pisarin"

Jose Asua *Pisarin* irudigileak hamahiru urteko Jose Migueli egindako marrazkia

demokristau aurrerazalearen erakusgarri. Ildo horretako hainbat europar aldizkari-  
tan agertu zen Azaolaren izena edo ezize-  
na: HOACen buletina, Bruselako *La Revue  
nouvelle*, Parisko *La Vie intellectuelle*, Ko-  
loniako *Dokumente*, Madrilgo *Cuadernos  
para el diálogo...*

Azaolaren eragin nagusietakoa Emmanuel Mounier frantses filosofoaren eta *Esprit* al-  
dizkariaren pertsonalismoa izango da, kris-  
tatutasun katolikoa eguneratu nahi zuena,

alegia. Ardura hori azaltzen duen saiakera behinena *La depreciación del hombre* (1949) dateke, Alea-ko hitzaldietan oinarritua. Barnean zeraman kristautasun existentzialistari bide eman zion halaber bi eleberriekin: Buenos Airesen argitaratutako *Fin de semana* (1952), eta Madrilgo zentsuratik igarotako *El pan de nadie* (1959), Joxe Artetxe adiskideak ongi ezagutzen zuena.

## EUROPA AMETS

Europa batuaren ametsari dagokionez, sarri erabiliko du gai hori idazlanetan. Gonzague de Reynold Friburgoko Unibertsitateko irakaslearen *La formation de l'Europe (1944-57)* erraldoia itzuliko du gaztelaniara. Reynold kontserbadore autoritarioa izan arren, uste osoko federalista zen. Esaterako, hizkuntz komunitateen bakezko bizikidetzarako arauak ematen dituen *Charte des langues de l'Institut fribourgeoisien* (1968) abiaburuan dago. Friburgoko beste irakasle baten, Gustav Schnürer historialariaren, *Kirche und Kultur im Mittelalter* (1924-29) liburua ere itzuli zuen.

1949an Europako Kontseilua sortzen da Estrasburgon, eta urte berean Azaolak *En busca de Europa* saiakera plazaratuko du. Nazionalismoek Europa batuari egin zioten kalteaz ohartzeko idatzi zuen Madrilgo Ateneoak argitaratutako *Complejos nacionales en la historia de Europa* (1952). 1957an Europako Ekonomi Elkartea eratzen da Erroman, eta autarkiatik ateratzen hasiko da Espainia poliki-poliki. Azaolak, Europa batuaren aldeko taldeak eratzeaz gain, liburu edo artikuluko bilakatuko diren hitzaldi andana emango du hurrengo urteetan: Oviedoko, Deustuko eta Nafarroako Unibertsitateetan, Gipuzkoako Industria Bazkunean... Mendea bukatzeare, Europar Batasuna egia bilakatu ondoren, *La Unión Europea hoy* (1994) emango du, Maastrichteko ituna azaltzearren.

## UNAMUNOZALE

Espainiako II. Errepublika hasita, idazle kutunena izango zuen Miguel Unamunok hitzaldia eman zuen Jose Miguelen Bilboko institutuan. Lau urte ondoren Unamunorekin hitz egin ahal izan zuen Salamancan,





Sabino Ruiz musikariaren ondoan hitzaldia ematen Bilboko El Sitio elkartean

baina errektore miretsiak ez omen zion jaramon handirik egin. Elkarrizketa hura etsigarri samarra izanagatik, Azaolak lau liburu plazaratuko ditu hirikideaz: *Las cinco batallas de Unamuno contra la muerte* (1951), *Unamuno y su primer confesor* (1959), *El mar en Unamuno* (1986) eta *Unamuno y sus guerras civiles* (1996).

1981eko maiatzean «La conciencia liberal y española de Bilbao» hitzaldi probokartzaileria emango du Sociedad el Sitio biziberrituan. 1908an Unamunok elkarte ospetsuan egindakoaren izenburu berekoa, alegia. Azaolaren arabera, zinezko liberalismoaren ezaugarria gutxiengoekiko begirunea da. Bizi zela argitaratutako azken lana



ere hari eskainia izan zen, Salamancako Unibertsitatearen eskutik: «Acercamiento al ideario estético de Unamuno» (2002).

Unamunozale erabatekoa izan arren, kritikoki aztertu zituen haren ideiak. Nabarmentzekoa da Azaolak ez zuela harekin bat egiten euskarari opa zion patuaz den bezainbatean. Euskara alde batera utzi ordez, hizkuntza zaharberitu egin nahi baitzuen.

## EUSKAL HERRIA

Kezka behinenetakoa Euskal Herria izan zuen. Horren frogagarri da gerraoste batean, CSICen *Arbor* aldizkarian agertutako artikulua: «Carta de las regiones: Vasconia» (1951). Orrialde gutxitan eskaintzen du euskal kulturaren ikuspegi orokor eta kritikoa. Sarrera historiko baten ondotik azaltzen ditu Euskal Herriaren gizarte egitura, hizkuntza, lokalismoa, batez besteko kultur maila, urritasunak, euskal ikerketen egoera eta, oroz gain, unibertsitatearen behar gorria. Eusko Ikaskuntzaren galera gaitzesten du heraberik gabe.





Liburu mardul eta sakonak idatzi zituen Euskal Herriaz. Besteren artean, *Vasconia y su destino* izeneko trilogia: *La regionalización de España* (1972); eta *Los vascos de ayer y hoy I* eta *II* (1976)


Atzerrian bizi arren, gertutik jarraituko ditu Euskal Herriko gorabeherak. Deustuko Unibertsitateak 1971n antolatutako antropologia biltzarrean hitzaldia emango du: «El quehacer cultural de los vascos de nuestro tiempo». Euskal kultur jasoa- ren gabezia salatu zuen, eta ez zen entzule guztien gogoko izan. Orduan plazaratuko du Revista de Occidente argitaletxeak Azaolaren *Vasconia y su destino* idazlan mugarriaren lehen zatia: *La regionalización de España* (1972). Artean Espainiako Transizioa abiatzeke, ezin zen argi eta garbi hitz egin, baina Estatua demokraziaren eta

subsidiaritatearen bidetik deszentralizatzeko argudio teknikoak jositako idazlan mardula da. Suitzar ereduaren bidetik, Espainiako autonomia erkidegoak nahiz Europar Batasuna irudika litezke liburuaren orrialdeotan.

Franco diktadorea hil ondoren agertuko da bigarren zatia, bi liburukitan: *Los vascos ayer y hoy* (1976). Lehen liburukian historia atal zabala dakar. Adibidez, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko foru harremanak azaltzen ditu, baina ez ditu horregatik alboratzen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Nolabait, Juan An-

tonio Zamakolaren *Historia de las naciones bascasen* (1818) tradizio liberal erbestatuarekin bat egiten du. Entziklopedia txikiaren gisako chunka orrialdetan, Euskal Herriaren alderdi ugarietzehatz-mehatz mintzo da: geografia, klima, antropologia, hizkuntzak, demografia, ekonomia, zuzenbidea, politika, kultura... Bigarren liburukian zazpi eskualdeen egoera aztertzen du, elkarren arteko oreka aurkitzeko bideak argitu nahian.

Madrilgo Instituto de Estudios Económicos-ek argitaratutako du idazlearen *El País Vasco* (1988) liburua. «El país de los vascos» izena jarri nahi izan zion, baina argitaratzaileak ez zuen onartu. Madrilen liburua aurkeztu zutenean, eztabaida sortu zen zerabilen «Vasconia» erdal hitzaren inguruan. Espainiako Konstituzioaren, Euskadiko Autonomia Estatutuaren eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren ostean agertutako idazlana da, beraz. Espainiako Trantsizioan sortutako egitura juridiko-politiko berriak xeheki aztertu arren, mugaz haraindi hedatzen den kultur jarraitutasunari eusten dio. 1976ko idazlanaren sintesi eguneratua da hein handi batean, eta



*El País Vasco* (1988)

antzeko egitura jarraitzen du. Euskal Herriaren ikuspegi orokor bezain dokumentatua eskaintzen du, baina aurreko saioan ez bezala, 1939tik ordura arteko bilakaera azaltzeko aukera izan zuen.

Europa batuarekin gertatu bezalaxe, Azaolak ez du Euskal Herriaren gaia inoiz bazterrean utziko. Hainbat hitzaldi


eman zituen biltzar ugaritan: Nafarroako Unibertsitateak Jose Migel Barandiarani egindako omenaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUk foruez antolatutakoan, Eusko Jaurlaritzaren II. Euskal Mundu Biltzarrean, Herria 2000 Elizak giza eskubideez egindakoa... Donostiako Untzi Museoak «Barojatarrak eta itsasoa» erakusketa antolatu zuenean, izen bereko liburuan agertu zen euskarara itzulitako testu bakarrenetakoa. Nabarmena da orobat 1997ko *Bidebarrieta* urtekarian gaztelaniara itzuli zuen Max Weber-en gutuna, alemaniar soziologoak mende bat lehenago amari Getxotik igorritakoa, alegia.




Donostiako Talaia Fundazioan 1997an, Xabier Gurrutxaga eta Alvaro Moreno alboan dituela

Suitzan bizi arren, jaioterriarekiko harremana ez zuen eten. Artikulu ugari agertuko ditu Angel M<sup>a</sup> Ortiz Alfau adiskideak zuzentzen zituen *Bilbao* eta *Pérgola* agerkerietan. Bereziki atseginak dira *Memoria de mi Bilbao* (2010) liburuan bildu diren udal aldizkariko artikuluak. Beste liburu batean jasoko omen dira kultur gehigarrian Aleaz idatzi zituenak.

Bilborekiko loturari eusten lagundu zion beste arlo bat operarena izan zen. Alfonso Carlos Saiz Valdivielso idazleak Arriaga Antzokiaren Luis Iturri zuzendaria aurkeztu zion. Azaola eta Iturriren arteko lankidetzari esker, ikusleentzako bost liburuxka didaktiko idatzi zituen, 1991-92 artean eszenaratutako opera banaz: *Carmen*, *Lucia di Lammermoor*, *Rigoletto*, *La Bobème* eta *Die Entführung aus dem Serail*.

  
José Miguel de Azaola.

Jose Miguel Azaola Uriguenen sinadura



# Euskarak kezkatuta



Azaolaren lanaren garrantziaz jabetuta, hainbat erakundek argitalpenak egin dituzte haren omenez: Bidebarrieta Kulturguneak (1999); Eusko Ikaskuntzak (2007); eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak (2010)

Lehen esan dugunez, Azaola ez zen euskaraz hitz egiteko gauza, baina euskararekin eta euskaldunekin harreman estuak izan zituen. Alea-ko kideen artean Lauaxeta euskal poeta berritzailea zegoen. Jesuitekin ikasitakoa, Lauaxetak antzinate klasikoa ongi ezagutzen zuen, eta Sofoklesen tragediak izan zituen hizpide taldearen bileretan. Bilboko *Hermesen* (1917-22) antzeko aldizkaria argitaratu nahi zuen Alea elkartearen bidez. Zoritxarrez, Gerra Zibilean hil egin zuten poeta jeltzalea.


«EGAN»

Gerraostean emaztearekin Donostiara bizitzera aldatu zenean deigarri egin zitzaion

Gipuzkoako hiriburuan, Bilbon ez bezala, goi klaseko emakumeak kafetegietan euskaraz aritzea. Azaola kide zuen Gipuzkoar Ateneoak ere 1945-46 ikasturtetik aurrera euskara eskolak agerian emateari ekin zion bi laguneren eskutik: Elbira Zipitria, ezkurtuko ikastolen andereñoa, eta Koldo Mitxelena hizkuntzalaria.

1947an Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletinean «Cervantes y nosotros» artikulua plazaratu zuen. Don Quijotek herri hizkuntzen literaturaren alde egindako aldarrria aitzakiatzat hartuta, euskararen historia kontrafaktual interesgarria aurkezten du. Zer gerta zatekeen Aro Berriko euskaldunek euskara literatur hizkuntza eta kultur tresna bilakatu izan balute? Besteak beste, gaztelaniak ez zukeen euskara hainbat eremutan ordezkatu, eta Euskal Herria indartsu sartuko zatekeen zibilizazioaren historian. Tamalez, ez zuten halakorik egin, eta euskara XX. mendean hiltzorian ikusten zuen. Kixote ameslariz osatutako herria agertu ezean...

Agian Donostiako giro euskaldunago horregatik, aldizkari elebidun bat egiteko asmoa agertu zuen 1947an bertan.



*Egan* aldizkariaren lehen zenbakia, 1948an Euskalerrriaren Adiskideen itzalean agertu zena

Hainbat lagun elkartu zituen Gipuzkoako Probintzia Diputazioan: Fausto Arotzena, Mariano Zirikiain Gaiztarro, Gabriel Celaya, Peñafloredako Kondea, Jose Antonio Donostia... Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen buletinaren literatur gehigarri gisa ateratzen hasiko da *Egan* elebiduna 1948tik aurrera. Zeharka Diputazioaren eta CSICen mendeko argitalpena zen heinean, egitasmo frankistatzat jo izan da. Antzeko salaketak jaso zituzten garai har-



tan Joxe Artetxe idazle eta liburuzainak nahiz Patxi Untzurruntzaga Itxaropenako argitaratzaileak, hainbat liburu plazaratzeko baimena eskuratu zutenean. Horietako bat, hain zuzen, Orixeren *Euskaldunak* (1950), Azaolak euskal literaturaren mugarri izendatuko du, beste askok bezala.

Hasierako *Eganen* euskal atalaz Artetxe arduratzen zen, eta erdal idazlanen aukeratzeari, Azaola. Hala ere, Federiko Krutwig-en lehen euskal poemaren argitalpena, esaterako, Jose Migueli zor zaio. Nolanahi ere, *Eganen* zer esanik izan zuen bitartean Euskal Herri osoko idazle askok aurkitu zuten bertan tokirik: Manuel Lekuona, Salvatore Mitxelena, Kauldi Sagartzazu, Manenzaundi, Emeterio Arrese, Mayi Ariztia, Jose Agerre, Julian Alustiza, Juan Mari Lekuona, Yon Etxaide, Jautarkol, Maria Dolores Agirre, Orixe, Santiago Onaindia, Bordari, Eusebio Erkiaga, Jon Mirande... 1952an utzi zuen *Egan*, arduradunek Blas de Oteroren poema kritikoa argitaratu nahi ez zutelako. Handik aurrera aldizkaria euskara hutsean agertu da.

Madrid, 16 de Junio de 1955.

Sr. D. Luis Michelena  
Seminario "Julio de Urquijo"  
Palacio de la Diputación Provincial  
SAN SEBASTIÁN

Querido amigo:

Me llegó su carta del día 10 de los corrientes, y lamenté muchísimo haber perdido la excelente ocasión que se presentaba de hablar con Vd. un rato, al cabo de tanto tiempo de no habernos visto.

Muy gustosamente haré la reseña del libro de García Blanco. No hace falta que se moleste en mandarme ejemplar, pues lo tengo, amistosamente enviado por el autor.

Pronto que tendré que hacer un viaje al extranjero que me llevará ocho o nueve días, pero a mi regreso, a principios de julio, escribiré la reseña.

Celebro que el Seminario que Vd. dirige siga su marcha. No le voy a decir nada para estimularle en su trabajo, pues sé que está Vd. enamorado de él y que todo lo que yo le diga sería ocioso; pero quiero que sepa Vd. con cuánto interés y simpatía recibo las escasas noticias que, de vez en cuando, me llegan acerca de su labor.

Se habrá Vd. enterado de que se crea en Bilbao una facultad universitaria: la sección económica de la de Ciencias Políticas y Económicas. Esto es un gran primer paso, que me alegra mucho, hacia una completa asunción de la universidad por el País. Ahora se trata de saber si, en San Sebastián, no podrá hacerse algo parecido con la sección de románticas o de clásicas, lo que daría al Seminario "Julio de Urquijo", de manera académica, más importancia de la que hoy tiene, aunque quizá no cuenta como la que merece tener.

Hace mucho tiempo que no veo números de "Egan". Me gustaría, efectivamente, recibirlos. Por eso le agradezco su amable ofrecimiento.

Salude muy afectuosamente en mi nombre a todos los amigos de ésta, y sepa siempre que cuenta con la amistad sincera de su amigo.

*José Miguel de Azabla*  
José Miguel de Azabla.  
Vitrubio, 16  
MADRID.

Azaolak Koldo Mitxelenari Madriletik 1955ean bidalitako gutuna. Julio Urkixo Mintegiko kide Manuel Agud ere adiskide mina zuen




## GURUTZEBIDETIK BIDEGURUTZERA

Zorrotz aztertu zuen euskararen egoera. *Arbor* aldizkariaren 1951ko artikuluan euskararen atzerakadaren berri ematen zuen, hiriburuetako erabilerak erkatzen zituela. Francoren Espainian bizi ziren euskaldun-  
elebidunen eta erdaldun hutsen kopuruak ematera ausartu zen: 500.000 eta 850.000, hurrenez hurren. Baita probintziaka ere: 200.000 euskaldun Bizkaian, 50.000 Nafarroan, gutxi batzuk Araban, eta beste guztiak Gipuzkoan. Landa eremuetan zuen indarra gorabehera, hiri-herrietan euskara bizitzen ari zen belaunez belau-  
neko galeraz ongi ohartzen zen. Horren erru nagusia gaztelaniazko eskola elebakarrarena zela salatzen zuen, eta hezkuntza arazoari behar bezala aurre egitea eskatzen. Bestela, euskara, Euskal Herriko altxorrik baliozkoena Azaolaren ustez, bospasei belaunalditan hilko litzateke. Kontuan har bedi gogoeta horiek estatu frankistak sortutako CSIC erakundearen aldizkarian eman zituela aditzera.

Hogei urte igarota, hitzaldia eman zuen Deustuko Unibertsitateak antolatutako antropologia biltzarrean. Azaolaren esanean, hiztun gutxiko hizkuntza batean balio unibertsalak adieraz daitezke eta, alderantziz, hedadura zabaleko hizkuntzetan, hutsaltasun ikaragarriak. Euskararen biziraupenari buruz hiru irizpide jarrai zitezkeela zioen. Lehenik, euskara gaur egungo kultur tresna egoki bihurtu nahi zutenak leudeke. Bigarrenik, hori ezinezkotzat, neurrigabekotzat edo politikoki kaltegarritzat jotzen zutenak. Eta hirugarrenik, gaztelania nahiz frantsesa kultur tresna izanda, euskara lagunarteko hizkuntza soil gisa irautea nahi zutenak. Lehendabiziko irizpidea baino ez zuen zuzentzat jotzen, beste aukera guztiek goiz edo berandu euskara aienatzera zermatelako. Euskara kultur tresna bihurtuz, hizkuntza etorkizunean hedatu, garatu eta aurreratu zitekeen. Bestela, ez. Nolanahi ere, hizkuntza gatazka politikotik atera beharra aldarrikatzen zuen.


1972ko *La regionalización de España*n, Euskal Herriaren kultur arazo handiez ari dela, euskararena hizkuntz auzi nagusitzat



Azaolaren *Los vascos ayer y hoy* (1976) liburuan datorren euskarak eta gaztelaniak Erdi Aroan zuten hedaduraren mapa

joko du, eta artean zuzen planteatu gabe jarraitzen zuela adierazi. Lau urte ondoren, *Los vascos ayer y hoy* idazlanean, maila handiko jendarteratze atala burutuko du Euskal Herriko hizkuntzez. Euskarari orrialde gehien eskainiko dizkio, eta luze jardungo da hizkuntzaren ezaugarriez: jatorri ezezaguna, mirarizko irautea, eremu atzerakorra, bilakaera geldia, dialekto


ugariak, literatura apala... Horretarako, puntako hizkuntzalari eta historialarien lanetan oinarrituko da: Rene Lafon, Koldo Mitxelena, Antonio Tovar, Jose Maria Lacarra, Jose Juan Bautista Merino, Ramón Menéndez Pidal, Rafael Lapesa, Piarres Lafitte, Luis Villasante, Julio Caro Baroja, Aingeru Irigarai, Txepetx, Fernando González Ollé, Pedro Irizar...



Euskararen atzerakadaren mapa XVI. mendetik 1973 arte, *Los vascos ayer y hoy* liburuan datorrena

Garrantzia handia eman zion Euskal Herriko hizkuntz aniztasunari. Bertakotzat jotzen zituen, euskaraz beste, frantsesa eta, bereziki, gaztelania-gaskoiak, Euskal Herriaren eremuan sortuak ziren neurrian. Gainera, immigrazioak berriki ekarritako

galizieraren egoeraz jabetzen zen, baita, aurrera begira, portuges-arabierak izan zezaketenez ere. Hala ere, deitoratu egiten zuen frantses-gaztelaniak euskarari zegioten sakadura hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan, eta immigrazioaren bidez.



CUADRO DIALECTOLÓGICO DEL VASCUENCE  
(Según el príncipe Luis Luciano Bonaparte) \*

Grupos	Dialectos	Subdialectos	Varietades
A....	I. VIZCAINO.....	1. Oriental.....	Marquina.
		2. De Guipúzcoa.....	Vergara, Salinas.
		3. Occidental.....	Bermeo, Arratia, Orozco, Plencia, Arrigorriaga, Guernica, Ochandiano.
B....	II. GUIPUZCOANO...	4. Septentrional.....	Tolosa, Hernani, Azpeitia.
		5. Meridional.....	Cogama.
		6. De Navarra.....	Burunda, Echarri-Aranaz.
B....	III. LABORTANO....	7. Propio.....	Sara, Ainhoa, San Juan de Luz.
		8. Híbrido.....	Arcangues.
		9. Del Bastán.....	Elizondo.
B....	IV. ALTONAVARRO SEPTENTRIONAL	10. De Guipúzcoa.....	Irún.
		11. De Araquil.....	Huarte-Araquil.
		12. De Araiz.....	Inza.
B....	V. ALTONAVARRO MERIDIONAL...	13. De las Cinco Villas...	Vera.
		14. De Ulzama.....	Lizaso.
		15. Cisapamplonés.....	(Egás), Olaibar, (Arce), Erro, Burguete.
B....	VI. SULETINO.....	16. (De Izarbe).....	(Puente la Reina).
		17. Ultrapamplonés.....	Otxa, (Cizur), Gulina.
		18. Propio.....	Tardets.
C....	VII. BAJONAVARRO ORIENTAL.....	19. (Roncalés).....	(Vidangoz), (Urzainqui), (Ustarroz.)
		20. Salacenco.....	Salazar.
		21. Cizo-Mixano.....	Cize, Mixo, Bardos, Arberoue.
C....	VIII. BAJONAVARRO OCCIDENTAL...	22. Del Adour.....	Brisecous, Urcuit.
		23. Del Labourd.....	Mendionde, Ustaritz.
		24. Baigorriano.....	Baigorri.
		25. Aezcoano.....	Aézcoa.

Guztion ondare zen euskara hiltzorian zegoela ulertzen zuen. *Vasconia y su destino* hirugarren zatian arazoaz xeheki arduratuko zela agindu zuen, baina zoritxarrez *Un mañana posible* izeneko azken zati horrek ez zuen argia ikusi. Dena dela, Azaolaren lanak oihartzuna izan zuen. Euskaltzaindiaren *Euskararen liburu zurriari* (1978) egin zion hitzaurre ezagunean, Mitxelena sarri aipatu zituen hark euskararen auziaz esandakoak.

Euskalki eta azpieuskalkien mapa eta hauei buruzko xehetasunak *Los vascos ayer y hoy* (1976) lanean

1988an agertuko da aurreko idazlanaren eguneratzea den *El País Vasco* liburua. Funtsean egitura bera jarraitzen du euskarari eskainitako atalean, baina errolda-inkesta berriei esker, datu zehatzak ematen ditu euskararen ezagutza mailaz, erabileraz edo irakaskuntzaz. Era berean, aurreko liburuan izan ez zuen askatasunaz hitz egin ahal izan zuen zenbait alderdi korapilotsuz. Euskarak XXI. mendean iraun dezan, nahitaezkoztat jotzen zituen hezkuntza, aldizkariak, telebista eta irratia. Era berean, horien tresna ezin zitezkeen euskalkiak izan, eta guztiz beharrezko ikusten zuen euskara batua. Agian prozesu mailakatuagoa aldeztu zuen, hiru estandarretik abiatuta.

Euskarak jasandako gurutzebide politikoa ere hizpide izan zuen. Haren ustez, XIX. mendetik integrismoak lehenengo, eta euskal abertzaletasunak ondoren, euskara politikaren mesedetan erabili zuten. Aldi berean, haien aurkari politikoek, liberalek, sozialistek eta espainiar nazionalistek, euskara gaitzetsi egin zuten. Espainiako Gerra Zibilaren irabazleek, euskal abertzaletasuna ahultzarren, euskara-eus-

kaldunak jazarri egin zituzten Francoren diktadura aldirian. Ondorioz, nazionalismoa eta euskara zeharo uztartuta geratu dira. Prozesu horrek, Azaolaren iritziz, Euskal Herriko aniztasunari eta bakeari kaltea besterik ez dio ekarri.

Euskararen etorkizunaz den bezainbatean, argi-itzalak ikusten zituen. Azken hamarkadan kopuru aldetik egindako aurrerakada azkarrak, hizkuntzaren kalitatean eta naturaltasunean urritasunak eta gabeziak zituelako. Azaolaren ustez euskararen etorkizuna ez zen unibertsitatean edo zientziaren esparruan jokatzeko ari, baizik eta bizitza arruntaren alorretan: kalea, etxea, lana, eskola, jolasa, aisia...

Garbi mintzatu zen Euskal Herriko hizkuntzen arteko bizikidetzaz, eta hizkuntza bat tokian tokiko harreman-bide nagusi izateko eskubideaz. Hizkuntz bereizkeria nahiz gatazka ekidin nahi zituen. Bereizkeria Frantziar alde bakarrekoa da, euskaldunen kalterako. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, alde bitakoa. Batetik, 1978ko Espainiako Konstituzioak euskaldunak gaztelania ikastera behartzen ditu. Bestetik, Euskadin erdal-



Suitzan bizi zenean ere, sarritan etortzen zen Euskal Herrira. Argazki honetan Areetan agertzen da, txapela jantzita, 1997an

dunei euskara ikastera behartzen zaie, administrazioan lan egin ahal izateko. Hala ere, euskaldunek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz egin ahal izatea bermatu nahi zuen. Erronka nagusia hiztunen eskubideen arteko oreka bilatzea litzateke, beraz. Ez zuen Euskal Herria hizkuntz komunitatetan banatzen, men-

debaldeko europar kulturari txertatzen baitzuen betiere. Ez zuen uste komunitate bereizi edo bakarturik zegoenik. Era berean, bertakotzat jotzen zituen hizkuntza, gai eta ideologia guztiak. Euskal Herrian, ondorioz, kultura ezberdinak egon ordez, askotariko euskal kultura bakarra legoke Azaolaren esanean.



Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Isabel Azaola alabari
- Leire Peñagarikano bilobari
- Koldo Mitxelena Kulturuneari

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
ISBN: 978-84-457-3320-2 (Lan osoarena)  
978-84-457-3323-3  
L.G.: VI 857/2013



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA